

ELKARRIZKETA: ALBERTO MATILLA, MODELO ARRASATEARRA

Arrasate

P R E S S U

1996ko
Uztailak 19
329. zenb.

60 URTE GERRA HASI ZELA

Uztailaren 18ko
altxamendua eta
ondorengo urteak
sei lekukoren
berbetan



IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR



SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42



**KONTZEPTU
BERRIA**

I
R
T
A
B
E
R
N
A
T
I

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Uda bero gogo bero

Uda atarian daukagu. Jaiak pil-pilean, denak jarraian datoz: Antzuola, Soraluze, Blankak, eta abar luze-luze bat.

Leku guztietan berdinaz hitzegiten da: nora joan, noiz irten... Urte osoan itxaroten egondako garaia. Oporrak gainean daukagu. "Lasaitasun bila! edo, milaka pertsonen artean hondartza eta inguruetan kiskaltzera doa gehiengo.

Makrofestival ugari ere egongo dira aurten: joan den astebukaeran kataluniar piriniotan ospatutako rock erreparu erraldoia; Sallent de Gallegen ospatutako etnikoa; eta Armintzan bertan (Bilbotik gertu) burututako reagge jaiak adibidez, nahiko inbidia eman dizkigute.

Eguraldi ona aprobetxatuz eta errei-bindikazioak ahaztu gabe, beste zenbait ekintza antolatu izan dira. Adibidez, astebukaera honetan bertan Kondekuan (Monterron parean) presoen alde egingo

den akanpada; edota uztailearen 25etik abuztuaren 4araino Anoetan (herrian), Arrasaten hain ahaztuta daukagun Abiadura Handiko Trenaren aurka burutuko dena.

Azken honi buruz, zer esanik ez, kontzientziazio izugarria falta dela esan behar; gutxi batzuk (betikoak) aberastuko dituen proiektu "fantasma" eta suntsitzailer hau, "pribilegiatu" batzuk bakarrik erabiliko duten bitartean, gure bailaran (beste batzuren artean) izugarritzko kaltea suposatuko luke: Udalaitez zulatuko duten pare bat tunel gutxienez; ondoko kanterak ia janda dauzkan Leze Txikiko kobaren desagertzea, etab.

Sermoirik nahi ez duenak, behintzat pilak karga ditzala, aisialdi garaia ondoren, ahazten saiatu garen guztia izango baitugu bueltan; bitartean ahal den beste ondo bizi!

IKER BARANDIARAN

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Azala: Goio Arana.



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaureritza Kultur Sailaren laguntza jaso du

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

beatriz

**oinetakoak eta
poltsak**

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

**Arrain freskoa
eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

.....

**La lista de
Schindler**

The end. Argiak ixotu dira. Beste filme bat bukatu da dagoeneko.

“AED Productions”en beste pelikula bat izan da, azken lau urte terdiak pasatxo grabatzen jardun duena.

Nik neuk akomodatzaileraren postutik atseginez eta ilusioz ikusi ahal izan dut Arrasaten eta arrasatearrok filmatutako pelikula hau. Zela-ko emozioa. Ikeragarria!

Hala ere, zinemagintza kritiko ona ez izanak eskaini diezadakeen ausardia puntutik, aitortu behar dut harri-dura eta miresmena sortu didatela filmearen Zuzendariek -Joxemari, Miren eta Josebak- euren konpromezu eta kalitatearekiko leialtasunagatik; filmearen gidoi-lariak -Zuzendaritza Batzordekideek- izugarritzko profesionaltasuna eta irudimena eskaini diotelako euren zereginari; aktore nagusiek, euren paperak ondo landuak zituztelako lan talde ezberdinetan eta antzezlan bikaina egin dutelako; aktore sekundarioek, filmearen arrakastarako puntualki jardun izan dutenek ere, euren iza-

retik onena eskaini diotelako. Denak ere, zein interpretazio parebakoak!

Norbanako ezberdinez gain, ezustekoa goxoa izan da ikustea ere, filmearen jantziak, makilajeak, banda sonoroa, garraioak, finantziarioak, dekorazioak e.a. tan zenbat enpresa txiki eta haundik, zenbat erakunde publikok, zenbat kultur kirol eta aisialdirako elkar-tek eta beste izaera ezberdineko erakundeek produkzioa nola burutu duten.

Ezin ordea denon izenik aipatu, noiz ikusi da eta, filmearen iraupena bera baino luzeagoa izan daitekeen parte hartzaileen izen zerrendarik?

Ez dio axola, gehienok anonimatuan egongo zareten arren egiozue txalo zeuen buruari lana ondo egin izanak eskaintzen dizuen harrotasunaz eta jaso itzazue horrez gain merezi duzuen arrasatearren txalo orokorra eta neuk dudarik eta zintzoena, partikulariki.

Ah! ahaztu baino lehen, jendea zineman kokatzen duen akomodatzailea aldatu izanagatik, filmeen produkzioa ez da eten. **Jaso** zure papera. To be continued.

JABIER OZAETA

.....


**Arrasateko
herriari**

Azken egunetan gertaturiko ekintza basatien aurrean eta konkretuki uztailaren 14ean, Arrasateko Batzokiaren aurka egindakoa, denok ezagutzen ditugun “herri salbatzaileek” zazpi koktel molotov jaurtiki eta arrisku gorrian jarri zituzten gure lokala eta inguruko etxebizitza.

Arrasateko EAJk eraso basati hau gogorki salatzen du. Faszista hauei, zera esan nahi diegu, EAJk bere esku-bideen eta askatasunaren alde demokratikoki jarraituko duela lanean.

Franco eta Hitler txiki uzten dituzue, esanez Euskal Herriaren alde borrokatzen duzuela, zuen borrokarekin miseria eta destrukzioa besterik ez duzue ekartzen. Herri hau, zuen ekintza basati horiekin aspertuta dago eta behingoz eskatzen dizuegu kontura zaitezteela, bide horretatik Euskadi hondamendira daramazuela.

ARRASATEKO EAJ-PNV



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETAK

• **Txitxinpe** •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76




Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Nora zoaz oporretan?




Mariano Porras
Ikaslea
(18 urte)

Ni Burgosen bizi naiz eta bertako herritxo batera joango naiz oporretan. Orain, Arrasaten nago auzolandegietan parte hartzen.




Aritz Pereda
Ikaslea
(14 urte)

Hemen geratuko naiz, gurasoak herrian geratzen dira eta. Jairik jai ibiliko naiz. Lagun batzuk, gainera, euren etxeetara joateko gonbidatu naute.



Santiago Martinez
Langilea
(59 urte)

Cuencara, herrira. Uztai-laren bukaeran joango naiz. Han ortutxo bat daukat eta igerilekua ere badago.



Nora Isasi
Ikaslea
(21 urte)

Amsterdamra. Hamabi egun egingo ditut han. Bigarren hamabostaldia hemen pasatuko dut.



Juan Sanchez
Ikaslea
(17 urte)

Extremadurara, Valle de la Serena herrira. Egunez igerilekura joango naiz, eta gaeuz kalera.



Olatz Orobengoa
Langilea
(25 urte)

Hemen geratuko naiz, lan egin behar dut eta. Hori bai astebukaeratan kanpora joango naiz. Pena apur bat ematen dit hemen geratzeak.



Diego Martiartu
Langilea
(28 urte)

Oraindik ez dut erabaki baina seguruenik Andaluzia aldera joango naiz. Brasila joatea gustatuko litzaidake, baina ez daukat horretarako dirurik.



Pilar Navarro
Etxekoandrea
(44 urte)

Malagara joaten gara, senarra hangoa da eta. Hondartzan gertu dugu, beraz hondartzan ibiliko gara.



**Zure OPEL
banatzailea
ARRASATEN,
zergatik joan
urrunago?**

**Uztailean
zapatueta itxita!**

OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatoria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Guritze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

19 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Los guerreros" 7etan eta 10etan.
- **LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA**
 Lore Gazteak dantza taldeak emanaldi berezia eskainiko du Monterronen gaueko 10.30etan.
- **MANIFESTAZIOA ETA AKANPADA EUSKAL PRESOEN ALDE**
 Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean manifestazioa arratsaldeko 7.30etan Gestorak antolatuta. Manifestazioa Monterronen bukatuko da eta ondoren akanpada hasiko da.
- **MONDRAGON BRASS ATERPEN**
 Mondragon Brass taldeak kontzertua eskainiko du Aterpen gaueko 10.30etan.
- **KAFE ANTZERKIA GURE LEKUN**
 "Contigo en la distancia" kafe antzerkia. Gaueko 11etan Gure Leku tabernan. Sarrera dohainik.

20 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Un vanpiro suelto en Brooklyn" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **AKANPADA EUSKAL PRESOEN ALDE MONTERRO-NEN**
 Egunean zehar ekintza desberdinak eta gauean afaria Arbolapetan. Antolatzailea: Jarrai.

1996ko TERMALISMO PROGRAMA

Arnedillo, Zestoa, Fitero eta Lierganeseko bainuetxe-etara joateko bidaia. Parte hartzeko baldintzak: 65 urte izatea, Gipuzkoan bizi eta norbere buruaz baliatu ahal izatea. Prezioa: diru sarreren arabera prezio desberdinak. Aurkeztu beharreko dokumentazio N.A.Naren kopia eta jasotzen den pentsioaren ziurtagiria. Eskaera egiteko epea abuztuaren 23an bukatuko da. Informazio gehiago lortzeko edota eskaera egiteko Udaletxeko Gizarte Zerbitzu sailera jo.

21 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Un vanpiro suelto en Brooklyn" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **MENDI IRTEERA BESAIDE-REKIN**
 Bakio, Jata eta Gorliza joango dira Besaidekoak. Irteera goizeko 7etan Garibaitik.
- **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Udana gaina, Telleriarte, Aztiria Gaina, Zegama, Otzaurte gaina, Etxegarate gaina, Beasain, Bergara, Arrasate. Guztira 105 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrondik.
- **MAALAKO ERRABALEKO JAIK**
 Eguerdiko 12.30etan San Franzizko elizan meza Errabalean hildakoen oroimenez. Ordubatean luntxa jubila-tuentzat Plus Ultra tabernan.
- **BIZIKLETA MARTXA DEBARA**
 EKIk antolatuta bizikleta martxa Debaraino. Ibaia berreskuratzearen aldeko martxa izango da. Irteera goizeko 10etan Garibaitik.

ITSASOTIK ITSASORA BIZIKLETAZ

Abuztuaren 3tik 17ra Mediterraneotik Kantaurira 14 eguneko bidaia bizikletaz. Debagunek antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira.



FERRERIAS KALEKO JAIK

Uztailaren 26an Ferrerias kaleko jaiak. Goizeko 8etan etxalderuen jaurtiketa. 12etan txistulariekin kalejira. Arratsaldeko 4.30etan haur jolasak, bonba japoniarrak eta txokolata. 7etan Parrokian meza hildakoen alde. 7.15etan ikurriña jaso, txistulariekin kalejira, herri poteoa, joku eta lehiaketak. 9etan afaria eta 11etan dantzaldia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 19**
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
- Larunbata 20**
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
- Igandea 21**
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.
- Astelehena 22**
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
- Asteartea 23**
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
- Asteazkena 24**
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.
- Osteguna 25**
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

22 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Un vanpiro suelto en Brooklyn"
 7etan eta 9.30etan.

• **MAALAKO ERRABALEKO JAIK**
 Goizeko 8etan etxafleruen jaurtiketa. Arratsaldeko 4etan ume jolasak eta txokolatada. 7etatik aurrera trikitixa. Gaueko 9etan afaria estradetan. 10.30etan Txinparta taldearekin dantzaldia eta 11etan suzko errubarak.

• **AKANPADA EUSKAL PRE-SOEN ALDE MONTERRO-NEN**
 Enkartelada mugikorra. Hiru egunetan zehar parte hartzaileen bidez Asanbladak eta proposamen derberdinak egiteko aukera egongo da.

EUSKARA IKASTAROK CC.OOK ANTOLATUTA

Hirugarren mailako euskara ikastaroa Langile Komisioak antolatuta. Hasiera irailaren 9an. Izena emateko azken eguna irailaren 4an. 100 orduko iraupena. Dohainik izango da. Informazio gehiagorako deitu 79 52 60 edo 76 46 51 zenbakietara.

23 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "Un vanpiro suelto en Brooklyn"
 7etan eta 9.30etan.

• **BASKIRIAKO ERREPUBLIKAKO TALDE FOLKLORIKOAKO**
 Baskiriako errepublikako talde folklorikoa gaueko 10.30etan Monterron parkean. Sarra: 800 pta. eta Gazte Txartelarekin 600 pta.

Irailera arte irakurle!

Azkenean iritsi zaigu oporraldia. Kostata, baina etorri da hori ere. Beraz, datorren irailaren 6a arte ez duzue eskuartean ARRASATE PRESS berririk izango.

Ordura arte ondo pasa itzazue oporrak eta lasai egon, irailaren 6an fresko fresko jasoko duzue aldizkaria zuen etxeetan. Ondo pasa!

25 OSTEGUNA

• **ZINE KLUBA**
 "Dias contados" gaueko 10.30etan Monterronen. Sarra: 400 pta eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

LANPOSTUEN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek hornitu behar ditu:

- Ingurugiro Eskolako irakaslea
- Emakume Saileko teknikaria
- 19 klinika laguntzailea

Hautaketa prozesuak agintzen dituzten oinarri-arauak Udaletxean jaso daitezke. Eskabideak aurkezteko epea uztailaren 29an itxiko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

AKELARRE
 Gozotegia

**ABUZTUAN ZABALIK
 GOIZEKO 9etatik
 ARRATSALDEKO 2ak arte**

Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

AKELARREKO TARTA EROTIKOAK.
 Postrerik tentagarrienak!
 Aukeratu zeurea!



Batzokia erasotu

Igandean, goizaldeko 5ak inguruan, Arrasateko Batzokia erasotu zuten. Erasotzaileek Batzokiko lehioa apurtu eta molotov koktelak bota zituzten barrura. Ondorioz mahai eta aulki batzuk erre ziren, instalakuntza elektrikoa hondatuta geratu zen eta paretak belztuta keagatik.



Juan Joxe Etxaberi agurra

Milaka lagun etorri ziren asteartean Arrasatera Juan Joxe Etxabe arrasatearrari azken agurra emateko. Arratsaldeko 7etan hileta elizkizuna ospatu zen San Frantzisko elizan, eta ondoren omenaldia Herriko Plazan. Omenaldian dantzariak, bertsolariak eta txalapartariak parte hartu zuten eta Jose Maria Olarrak, HBko Mahai Nazionaleko kideak, mitina eman zuen. Asteazkenean erraustera eraman zuten Juan Joxeren gorpua. Arrasatearra uztailaren 12an hil zen Urruñan bihotzekoak jota.

Eroskirekin hitzarmena sinatu

Sozialisten aurkako botoekin, joan den ostegunean bildutako udalbatzak onartu egin zuen Eroskirekin hitzarmena sinatzea. Horren arabera, Eroskiren aurrean dagoen bidegurutzea konpondu egingo da, eta horren kostua bere gain hartuko du Eroskik.

Alderdi sozialistaren ustez, hitzarmenak ez du segurartzen Eroski berria zabalduko denean denda horretarako sarbideek trafikoan oztoporik ekarriko ez dutenik.

Bi mozio onartu

HBk, EBak eta PSE-EEK jarritako hiru mozio

aztertu ziren joan den osteguneko plenoan, eta azken bi alderdienak onartu egin ziren. PPK hirigintza arloan egin dituen aldaketan aurka mozia aurkeztu zuen EBak. Aldaketa horien arabera, ez dago babes modura uzten den lursailik

eta dena da urbanizagarria. PPKo zinegotziak esan zuenez, neurri horiekin etxebizitza merkeagoak eta babes ofizialeko etxe gehiago eraikiko dira. Arrasateko Udalak legea ez dezala bete zioen mozia aurkeztu zuen HBk, baina

ez zen onartu.

Adegiko idazkariaren aurka egindako atentatua salatzeke PSE-EEK ipinitako mozioak ere aurrera egin zuen. HB kenduta gainontzeko alderdiak gaitzespen horren alde azaldu ziren.

JAIOZKAK

- Haizea Jone Alberdi Gonzalez. Uztailaren 3an.
- Maitane Mayor Corres. 5ean.
- Oihan Rodriguez Iturbe. 9an.

EZKONTZAK

- Juan Antonio Talledo Zubillaga eta Maria del Carmen Martin Martin. Ekainaren 29an. Zibilez.
- Jon Imanol Pie de Hierro Ormaetxea eta Izaskun Ezpeleta Calvo. Uztailaren 6an. Zibilez.
- Alberto Ozaeta Mendiartx eta Yolanda Perez de Arenaza Sogorb. 6an. Zibilez.
- Fernando Ruiz Fernandez eta Itxaropena Vitoria Bolinaga. 6an. Zibilez.
- Patxi Xabier Zubizarreta Arenaza eta Miren Amaia Iturbe Mendiartx. 12an. Zibilez.
- Eugenio Arana Balzategi eta Beatriz Barrutia Trojaola. 13an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Florencia Olazagoitia Garcia. Uztailaren 2an. 91 urte.
- Maria Martin Caceres. 13an. 68 urte.

HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK, 3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

BANKINTER
A G E N T E A

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute errententziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretariko batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorriaz aprobetxa dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.



Sagra Lopez



Antxon Mendizabal

Juan Joxe hil zaigu

Hirurogeigarren hamar-kadan kokatu behar dugu Juan Joxek emandako garrantzitsuena. Frankismoaren gau beltzearen beltzean gaude eta Espainiako estatuak gure herriaren aurkako politika genozida, inperialista eta arrazista aurrera darama. Hemen, milaka urteetan bizi eta iraun duen herri bat, betirako desagertzeko prozesuan eta arriskuan dago. Frankismoaren aurkako erresistentzia ia ez da existitzen eta errepresioa, akulturizazioa, eta zapalkuntzan bitartez inposatutako frankismoaren kontsentsu soziala, gure gizartean gutzitza hedatua dago.

Juan Joxe ezagutu dugunok badakigu berak Euskal Herriarekiko betidanik eduki duen maitasuna; bere barne barnean Euskal Herriarekiko beti eraman duen maitasun ikaragarria. Eta maitasun ikaragarri horretan oina-

rritzen dira bere bizi osoan edukitako jarrera eta joera politiko guztiak. Berak, garai horretako zapalkuntza beltzean, Euskal Herria hil ala biziko egoera batean ikusten du. Eta horrela, garai horretako eztabaida guztietan, eske ma askatzaile berrien aldeko agertzen da, eta Euskal Herriaren askatasunari ematen dio beti lehentasuna.

Juan Joxek, eta gutxi batzuk berarekin, espainiar estatu zapaltzaile eta bortitzari aurre egingo diote frontalki.

.....
**“Arrasatearrok
 ondo ezagutzen
 dugu berak eta
 Etxabetarrak
 sufritutako
 errepresio
 latza”**

Interes pertsonaletan eta jarra-
 ra korporatibistetan bete bete-
 an murgildurik zegoen gizar-
 te horretan, Juan Joxek adie-
 razten zuen proiektu aska-
 tzailea aurrera eramateko
 behar genuen sujeto berria:
 pertsona emankorra, ausarta,
 interes pertsonal gabekoa,
 guztia prest emateko zegoena,
 herriaren askatasunareki-
 ko konpromezu handia zeu-
 kana.

Jakina, arrasatearrok ondo
 ezagutzen dugu berak eta Etxa-
 betarrak sufritutako errepresio
 latza. Zenbat aldiz ezagutu
 dugu familia osoa atxilotua,
 zigortua eta deportatua. Bere
 anaia Joakinen aurka atentatu-
 ak egin zituztenek eta aten-
 tatu ezberdinetan bere anaia
 Iñaki eta emazte Agurtzane hil
 zituztenek, 18 bala sartu ziz-
 kioten gorputzean; lau-bost
 bala metraila betirako gorpu-
 tzean geratu zirelarik. Erre-
 presio luze batengatik ahituta
 zegoelarik, Fresnesko espe-
 txean, independentisten aur-
 kako politika horretan, sufri-
 tutako mezpresuaren ondorioz
 bizia agortu zaio.

Juan Joxe, Euskal Herria-
 ren historian, urrezko letreetan,
 betirako, abertzale eta borroka-
 lari eredugarria gisa agertzen
 da. Erresistentzia berriaren mu-
 inaren muin dagoena: Euskal Herri
 Berriaren erditzean eta ezker ab-
 ertzalearen sorkuntzaren erdi
 erdian agertzen dena, Juan
 Joxe joan zaigu, baina berak
 erakutsi dizkigun konpromezu-
 a, duintasuna eta bereziki
 Euskal Herriaren askatasu-
 narekiko maitasuna, bere oroi-
 men maitagarriarekin batera
 gurekin geratu zaigu.

USTEAK USTE

BABES-KREMAK ETA ZIGARROA

Uda heltzen denean
 kosmetika etxeek euren
 babes-krema produktuen
 publizitatearekin bonbar-
 datzen gaituzte, eta ez
 bakarrik kosmetika
 etxeek, baita osasunari
 buruzko aldizkariak eta
 panfletoek ere. Ez da
 gutxiagorako; azaleko
 minbiziak izugarri egin
 duela gora gauza jakina
 da eta horren aurrean,
 urtero berberak izan
 arren, sekula ez daude
 soberan gomendio eta
 prebentzioak.

Zorionez jendea arazo
 horretaz kontzientzia
 hartzen hasi dela uste
 dut, nahiz eta oraindik
 babes altuegiko kremak
 ez dituzten ematen
 eguzkiaren izpiek euren
 gorputz txuriak beltztuko
 ez duten beldurrez.

Duela egun gutxi
 berriz, aurreko parrafoan
 diodan zoriontasun horrek
 zer pentsatu eman zidan
 lagun baten hitzak entzun
 ondoren. Zera esaten
 zuen erretzaileak ez den
 nire lagun kontzientziatu
 batek: “Horrenbeste
 eguzkirako crema eta
 babes zertarako? Jendea
 hondartzara edo pizinarra
 joaten denean gorputza
 mila kremekin zikintzen
 du baina gero hor ikusten
 dituzu, eguzki izpien
 azpian zigarrotxoak erre-
 tzen!”. Eta nire lagun
 horrek arrazoia du.
 Azaleko minbiziak ekiditea-
 rren babes handiko
 kremak erabiltzen ditu
 jendeak baina zigarrotxo-
 aren kea arnasten jarrai-
 tzen du. Zigarroek eguzki-
 rako kremen antzeko
 babesa balute...

MAIDER EGÜES

**ONGI ETORRI,
 konpainia onean
 egoteak badu
 abantailik.**


**SEGUROS
 BILBAO**

- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67



Udalaren patrimonioa zein den jasotzen duen inbentarioa onartuko da plenoan.

Beste udal pleno bat udako oporren aurretik

Oporren aurreko azken plenoa egiteko bilduko dira zinegotziak datorren asteartean.

Hirigintza arloko gai batzuk jarriko dira mahaigainean eta horrez gain, udal inbentarioa ontzat emango dute zinegotziek. Inbentarioan Udalaren patrimonio guztia aipatzen da, hasi eraikuntzetatik eta toki horietan dauden aulki edo mahaietaraino.

Azken inbentarioa 86an egin zen, baina orain egindakoa askoz ere zehatzagoa da. Udaleko idazkaria, Iñaki Txintxurreta, ari-

tu da azken bi urteetan inbentarioa berritzen udaletxeko langileen laguntzarekin. Normalean inbentarioak enpresa espezializatuek egiten dituzten arren, herrikoa Arrasateko Udalean egitea erabaki da. Hamabi tomatan bilduta dago Udalaren patrimonioa.

Inbentarioan Udalarena zer den aipatzeaz gain, gauza horiek zenbateko balioa duten ere aipatzen da. Hala ere gauza batzuk, Montterongo parkea eta kaleak adibidez, ez dute baliorik erabilpen publikodunak direlako eta ez direlako salmentan jarriko.

EKIk Trefasa salatu

Asteazkenean salaketa martxa egin zuen EKI taldeak Uribarriko Trefasa enpresara. Enpresa horrek ekainaren bukaeran Aramaio erre-kara egin zuen isurketa salatzeari izan zen martxaren helburua. Ekologi taldearen arabera, 7.000 litro azido sulfuriko eta kolidriko bota zituen Trefasak Aramaio erre-kara. Astean egindako ekitzaz gain, Gipuzkoako Ingurugiro Fiskalaren aurrean salaketa aurkeztea eta Trefasako enpresa komiteari idatzia bidaltzea erabaki du EKIk. Idatziaren bidez, Trefasa ekoauditoria egitera behartu dezatela lortu nahi dute ekologistek.

Uribarrikoek 710 sinadura bildu

Uribarriko jubilatuta etxe-koek 710 sinadura bildu dituzte, eta Udaleko alderdi politikoei bidali dizkiete. Egoitza berritzeko dirua ematea eskatu nahi dute sinaduren bidez.

Hirukoak egoitzarako dirurik ez ematea erabaki zuelako hasi ziren Uribarrikoak sinadurak biltzen.



"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"

96-97 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Alemana, frantsesa, ingelesa eta gainera umeendako nobedadeak ditugu

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00



Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58



VENTANAS SAN MIGUEL

**Ventanas San Miguelekin...
Denean irabaziko duzu.**

Erosotasunean irabaziko duzu.

**Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.**

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Iturriotz, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 78 10



*Etonki guzera!
Denean irabaziko duzu!*

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

AROSZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Telefonoa eta Faxe: 76 54 91

B ALTZARIAK **erango**

- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak



*Eta orain
Berango
bainu altzariak ere bai!*

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea • ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92



Emakume hauek sarri sarri elkar-tzen dira kafea hartu eta elkarrekin arratsaldea igarotzeko. Uztailean berriz, bidaia bat egiteko ohitura dute. Aurten Bizkaiko kostea ezagu-

tzera joan dira, Gaztelugatxeko San Juan, Algorta... Gainera Santurtziko zubi kolgantean ere ibili ziren. Afaria Bilboko Anboto jatetxean izan zuten eta ondoren bingora joan ziren.

IZEN PROPIOAK

● **Jesus Mari Plazao-la** 39 urteko arrasatearra-ren *Mendi* eta *Turko* txakurrek arraza mailako lehen saria irabazi dute Busturian. *Mendi Gorbea* arrazako txakurra da eta 8 urte ditu; *Turko* iletxu arrazakoa eta 7 urte ditu. Txakurrek bi froga egin behar izan zituzten, lehena puntuaketana eta bigarrena ardiekin erakusketa. Froga bietan aterako puntuei esker lehen postua eskuratu zuten. Jesus Mariaren txakurrek arraza mailako saria irabazten duten lehen aldia da.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
 ESTOMBA
 GOMEZ
 MURGIENDO
 OTALORA
 RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

EPPEDE



Nerea Etxabe atxabaltarra eta **Jose Mari Carrillo** esko-riatzarra ekainaren 8an ezkondu ziren Dorletako Santutegian. Arratsalde ezkondu ziren eta gauean Gure Ametsa jatetxean izan zuten afaria. Zorionak bikote!



Idoia Peñakoba eta **Asier Mujika** arrasatearrak zapatuan ezkondu ziren Udaltxeko pleno aretoan. Bazkaria Aspeko Etxeberri jatetxean izan zuten eta ezkonbidaian Australiara joan dira. Zorionak!



Txatxilipurdiko udalekuetako gaztetxoak bisitari izan genituen joan zen astean. Arrasate Press eta Arrasate Telebistan egiten den lana gertu gertutik

ikus eta entzuteko aukera izan zuten eta egin zituzten galderei esker zalantza eta jakingura guztiak argitu ahal izan zituzten.



San Viator ikastolako ikasleek euren irakasleen laguntzaz **"SanviHator"** aldizkaria kaleratu dute. Erreportaiak, albisteak, kontuak, lehiaketak... denetarik aurki daitezke kazetari amateur hauen lanean. Egileak argazkian agertzen diren 2. eta 3. mailako gazteak dira. Animo, lan polita egiten duzue eta!



Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

BIONA
TABERNA

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

Gerra zibila Arrasaten

Beñardo Kortabarria

Itxaro Zubillaga

Atzoko egunez, orain 60 urteko uztailaren 18an euskaldun eta espainiar ugariren bizitza aldatu zuen gertakari batek: Franco generalaren altxamendua Marokon. Gerra piztu zen, eta gura ez gura, arrasatearrek ere gerran sartuta ikusi zuten euren burua. Askok bizia galdu zuen, baina oraindik badaude gertakari haiek ondo baino hobeto gogoratzen dituzten arrasatearrak. Horietaiko batzurekin egindako berbak dituzue ondorengo orrialdeetan, bizi bizirik gordetzen dute eta orduko lekukotasuna.

Gerra hasi baino lehenagotik giro nahasia eta eskas samarra zen nagusi Arrasaten: eskertiar eta eskumakoen arteko liskarrak kasik egunero, abertzale eta espainiar zaleen artekoak, sinestundun eta laikoena. Errepublikarrak, espainiar tradizionalistak, falangistak, sozialistak, abertzaleak eta karlistak elkarrekin bizitzera derrigortuta zeuden, eta askotan nekeza suertatzen zen.

Gerra etorri aurreko gertakariaren artean, aparteko aipamena merezi du 1934. urteko urriak. Izan ere, estatu osoan bezala, Arrasateko kaleetan istilu larriak gertatu ziren. Tentsioa medio Espainiako gobernua erori egin zen urriaren 1ean. Berria osatzen hasi eta garbi ikusi zen tradizionalistek tokia izango zutela

bertan. Hori gertatuz gero, errepublikarrek, sozialistek eta komunistek pentsatzen zuten Errepublika bukatu egingo zela, eta ondorioz iraultza egiteko konpromezua hartu zuten. Urriaren 3an dagoeneko osatuta zegoen gobernu berria, 3 ministro tradizionalista bertan.

Gaueko hirurak aldera indar iraultzaileak herria hartzen hasi ziren. Serenoak, mikeleteak, alguazilak... harrapatu eta Casa del Pueblora eraman zituzten. Goizeko 5etarako herria hartuta zegoen, goardia zibilen kuartela besterik ez zen falta, baina ingu-



ratuta zegoen. Bitartean Marcelino Oreja Zerrajerako jabea, eta Rikardo Azkoaga zuzendariatariko bat atxilotu egin zituzten. Dagoberto Resusta diputatua aurreko bien alde egitera joan zen, eta haiek bezala, atxilotuta geratu zen.

Iraultzaileek kuartela inguratuta zutela, Takolo inguruan gobernuaren soldaduak agertu ziren. Dena bertan utziz, iraultzaileak Casa del Pueblora joan ziren. Barrikada eginez, batzuk kamioia jarri zuten ate aurrean; beste batzuk, atxilotuak hartu eta atetik irtenda Ferixalekura eramane zituzten. Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta bertan geratu ziren, hilik; Ricardo Azkoagak, zaurituta, ihes egin zuen eta soldaduei abixu eman. Militarrek Gasteiztik irten eta Eibarrerantz zihoazen, ez zekiten Arrasaten ezer gertatzen zenik, eta bideari jarraitu zioten.

Bi egun beranduago, Burgotik etorritako soldaduek herria hartu zuten. Iraultzaile asko atxilotu egin zituzten, beste askok Frantziara aldegin zuen, eta istiluak bukatu ondoren ondorioak garbi ikusi ziren, 92 kanporatu Zerrajeratik eta 35 ELMATik. Egun batzuetara, gainera, Segundo Vitoriaren hilotza aurkitu zuten; Zerrajerako UGTko

serenoa zen. Istiluei hasiera eman zietelakoan, beste 8 lagun atxilotu eta Guadalupe eta Ondarretako kartzeletara eramane zituzten.

Hoztu ez, baina ondorengo bi urteetan apur bat epelduko zen giroa, 1936an, ezkerreko Fronte Popularrak huteskundeak irabazi eta uztailan Francoren altxamendua iritsi zen arte. Uztailaren 17an Marokon gertatutakoa ezaugu ondoren, jende asko bildu zen Casa del Puebloren aurrean, arma eske eta bere laguntzeko borondatea azalduz. Arrasaten zeuden Guardia zibilak ere Errepublikaren alde agertu ziren eta herriaren defentsa antolatu zen. Dena alferrik, irailaren 26an Francoren indarrek herria hartu zuten. Ondoren etorriko ziren afusilamenduak, gaizki ikusiak, lapurretak, atxilotetak, gosea...

Bakoitzak ahal zuen moduan pasa zuen gerra garaia eta gerra ostea, pertsona bat historia bat. Gainera, askorengan bizirik dirauen sasoiada, horregatik batek baino gehiagok uko egin dio gure galdeketerari erantzuteari. Dena den, gertakari horien eta beste askoren lekuko izan ziren 6 lagunekin berba egiteko aukera izan dugu eta hiru galdera bota diegu. Honako hauek:

- 1) Nola gogoratzen duzu orain 60 urteko egun hura?**
- 2) Zela pasatu zenuen gerra?**
- 3) Zer diozu gerra osteko Arrasate hari buruz?**




Justa Ezkurra

Justa Ezkurrak 7 hilabetez gertu gertutik bizi izan zuen gerra. Erguinen bere familiaren etxe ondoan trintxera jarri zuten eta ia etxetik irten barik igaro behar izan zituzten egunak. Ezkurratarren etxeak 9 mortero jaso zituela ondo gogoratzen du eta etxe ondoan Santiago Dolara hil zela ere bai, hilketa bere begiekin ikusi zuen eta. Justarentzat urte gogorak izan ziren baina gazteak zirenez ez zuten pentsatzen hilko zirenik. Dena dela beti arriskuan zeudela esan digu. Etxean egunero 18 militar izaten zituzten: reketeak, soldaduak; denetarik. Gainera soldaduei ogitartekoak prestatzen zitzairen eta zorri pilo galantaz izaten zituzten erropak garbitu. Etortzen zenari on egin behar, orduan ezin zen eta ezetzik eman bestela tiro bat jasotzeko arriskuan egon zitezkeen.

Justak gerran goserik ez zuela pasatu aitortu digu baina ostean bai. Arrasaten familia askok gose galanta pasatu zuen eta horren ondorioz urte gogorak bihurtu ziren. Gerrako anekdota bat ere kontatu digu. Justaren etxe aurrean abiazioarendako zuloa egin zuten. Bere ama ere bonbardaketa hasten zenean bertan sartzen zen. Justak Gorostizara joateko ohitura zuen baina bertara joateko zati arriskutxu bat pasa behar izaten zuten beraz kontuz ibili behar ziren tirorik ez jasotzeko. Zegoen egoera ikusita Justak ama zulotik atera eta Gorostizara eramane zuen. Eskerrak erabaki hori hartu zuela egun horretan zuloan zeuden hainbat pertsona hil eta zauritu egin ziren eta. Morteroak Murumenditik jaurtitzen zituzten, eurak entzun eta gordetzeko astia izaten zutela aipatu du. Bestalde San Andres egunean bere gurasoek zilarrezko eztaiak bete zituzten egunean, ehundoko tiroketa egon zela gogoratzen du.

“Bizitzako urterik gogorrenak izan ziren, arrisku handia pasa genuen”




Bixente Barandiaran

Gasteizen harrapatu zuen altxamenduak Bixente, perratzaile ikasten ari zen eta. Egunean bertan saiatu zen Arrasatera etortzen, hemengo taxistarekin Dato kalean topo egin ondoren, baina ezin izan zuen. Gasteizen bertan geratu behar beraz.


Francoren indarrak ziren nagusi Gasteizen eta Bixentari berehala iritsi zitzaion kuartelean aurkezteko deia, 32 kinta mugiarazi baitzuten. Aginduak beteaz kuartelean aurkeztu eta soldadu joan zen. Hiru urte egingo zituen han eta hemen, trintxeratan, perratzaile, babeslekuak eginez... denetarik. "Ondotik bala bat baino gehiago pasatu zitzaidan, baina zortea izan eta onik bueltatu ahal izan nintzen, beste batzuk bidean geratu ziren".

Bueltatu eta giro eskasarekin aurkitu zuen Arrasate. "Jende gutxi zegoen Arrasaten, asko kanpoan, beste asko hilda, atxilotuta ere mordo bat... agure eta andre zaharrez, eta mutikoez beteta zegoen herria. Ambiente oso eskasa zen, denok geunkan ba zer bait".



Teodoro Garcia

Teodoro Garcia Zamorako Morales de Toro herritik etorri zen Arrasatera lan egiteko. Hemen zegoela gerra piztu eta sozialisten bandoan ibili zen. Gerra leherterakoan mendira jo behar izan zuen, Bilbo eta Donostian denbora pasa ondoren, Santanderra joateko. 83 urteko gizonak urte gogorak izan zirela esan digu. Teodoro metrailaz zauritu zuten eta 10 hilabetez ospital batetik bestera ibili behar frentearen erasoak ekiditzeko. Anekdotarik ere kontatu digu. "Gu kamioietan alde batetik bestera ibiltzen ginen, behin leku batera sartu gintuzten eta fazistez inguratuta geundela ohartu ginen. Bertatik ihes egin behar eta gorriak pasa genituen baina azkenean ez zen inor zauritu". Teodorori fusilekin ibiltzea ere tokatu zitzaion, 23 urte baino ez zituen eta gogorra egin zitzaion arren beste erremediorik ez zegoela aipatzen du. Gerran Amelia bere emaztearekin ezkondu zen eta bukatu zenean biak Frantziara joan ziren erre-fuxiatu moduan. Frantziara joan eta bertako gerra ere hartu zuten. Frantzian lau urte igaro zuten.



Jose Mari Uranga

Jose Mari Urangari ez zaio gerra garaia gogoratzea gustatzen, "alde batekoak eta besteak handiak egin zituzten eta". Uztailaren 18an Arrasaten zegoen, Zerrajeran lanean. Lehen egunetan sozialistak nagusitu ziren, eta 100 karlista atxilotu zituzten, bera tartean. Bergarara eraman eta han eduki zituzten egun batzuetan, Bilbora eraman arte. "Trintxeragintzan pasa nuen denbora gutzia, Bilbo erori artean. Bilbotik etorri eta Requete joatea erabaki nuen, baina Donostian errekonozimendu medikorik pasa ez nuenez etxera itzuli nintzen. Hemen egon nintzen bukaera iritsi artean".


Irabazleek zein galtzaileek pozez hartu zutela gerraren bukaera dio Jose Marik, "halako astakeria izan zen hura. Galtzaileek normala denez penaz zeuden eta egoera txarrean geratu ziren, baina denok atera ginen galtzaile. Bakarren bat aberastu zen, baina gainontzekoak galtzaile atera ginen. Gero poliki poliki lanean hasi behar, orduan lan asko zegoen eta".



Asensio Altuna

Estrada baserrian bizi zen Asensio gerrak eztanda egin zuenean. Kaleko kontu askorik ez daki berak, baina esaten du egun haietan basoan pasatzen zuela denbora dezente, baita lotan ere, beldurrez. Beraren aurkako salaketa ere aurkeztu zuen norbaitek, arrasatearren nazionalista sutsuenetarikoena zela aipatuz. Hori tarteko Guardia Zibilen koartelera aurkeztu behar izan zuen. "Kapitainak esan zidan nola zegoen salaketa nire aurka eta nik erantzun nion ez niola inori kalterik egin. Beste salaketaren bat aurkezten ez bazen, ez zuela ezer gehiago egingo adierazi zidan". Abertzalea zen Asensio, baina requeteen artean bazuen lehengusu bat eta harengana jo zuen laguntza eske. Soldadu eraman zuten eta Bilbo inguruan eta Araban pasa zituen hiru bat urte. "Armarik ez nuen hartu eskuetan, sukaldariaren laguntzailea izan nintzen". Gerratik etorri eta ambiente eskasa aurkitu zuen herrian, jendearen artean. "Gainera janaria eta gutxituta zegoen. Nik neuk ez nuen inorekin arazorik izan, baina ahal dela baserrian egoten nintzen, kalera jaitsi barik".

"Gerrate osoan ez nuen arma bakar bat ere hartu eskuetan, sukaldariaren laguntzailea izan nintzen"



Bixente Barrutiabengoa


Bixente Barrutiabengoa 24 urte zituenean joan zen gerrara. Amaiur batailoiko partaide izan zen. Garai hartako oroitzapen tristeak ditu, tiroak, balak eta une gogorak ditu buruan. Gerra hasi baino lehen haratuzte batzutan Bixente eta beste lagun batzuk emakume jantzi ziren, Batzokikoek ez zuten jarrera ondo ikusi eta kanporatuak izan ziren. Gerra piztu zenean bestalde, deitu eta gudari joan zen. Bixente Arrasatetik Oriora joan zen, Donostia aldean ibili eta gero, Elorriotik bizkaira. Lekeitiotik Gernikako bonbardaketa ikusi zuela gogoratu digu. Guztiz hunkituta kontatu dizkigu gerra garaiako kontuak 86 urteko gudari honek. Bixentek ez zituen gurasoak guda bukatu arte ikusi eta bi anaia zauritu zirela jakin izan dugu. Berak ere belarri ondoan zauriak izan zituen. Preso ere egon zen Bilboko Eskolapioetan denboratxo bat igaro ondoren Segoviako Batallon de trabajadores 16era eraman zuten. Sukaldari lanak bete zituen bertan. Batez ere Garbantzuak jartzen zituzten eta bertako ura garbantzuak biguntzeko ona ez zenez beti gogorak jaten ei zituzten.

Gerrak iraun zuen denborako urte gogorak pasa ondoren etxera itzuli zen. Herria bere esanetan ez zegoen hain apurtuta baina gosea zela eta beste zenbait arazo urte gogorak izan ziren ostekoak ere. Gerra aurretik Ugarte Konpañian lan egiten zuen Bixentek baina bukatu zenean ez zuten hartu. Beraz Argiñen peoi egin zuen lan zementua bizkarrean hartu eta batetik bestera eramaten. Urte batzuk beranduago berriro hasi zen Ugarte enpresan lanean.

Bixentek Gernikako bonbardaketa Lekeitio gainera ikusi zuen, gogorra izan zela aitortu du



ILEAPAINDEGIA



Construcciones Canas Esteban txapelkun Gasteiz Cup txapelketan

Construcciones Canas Esteban taldeko jokalariek Gasteiz Cup txapelketan hartu zuten parte joan zen astean. Astelehenetik zapatara artean hainbat partiduko jokatu behar izan zituzten. Lehen norgehiagoka Cadi Irabia taldearen kontra jokatu zuten eta arrasatearrak 11 eta 0 nagusitu ziren. Bigarren erronkako etsaia Aldapeta izan zen, banako berdinketarekin amaitu zen neurketa. Asteazkenean Kataluniako Bic taldea izan zuten aurrean. Azken emaitza 6 eta 0 Canas Esteban taldearen alde. Condado De Treviñoren kontra berriz, nagusitasun osoz irabaztea lortu zuten 11 eta 0. Ostira-lean finalerdiak egon ziren jokuan. Aldapeta eta Canas Esteban taldeak aurrez aurre. Arrasateko gazteek 3 eta 0ko garaipena lortu zuten. Zapatuan berriz final handia. Arrasatearren aurkaria Gasteizko Corazonistas taldea izan zen. Neurketa horretan ere Canas Esteban taldekoek ezarri zuten partiduko erritmoa. Horrela bada, 5 eta 1 irabaztea lortu



Construcciones Canas Esteban taldekoek nagusitasun osoz irabazi zuten Gasteiz Cup txapelketa.

zuten. Txapelketa borobila izan da Neskens eta Willy zuzentzen duten taldearentzat. Entrenatzaileak eta laguntzaileak beraz, pozik egoteko arrazoirik badute. Hala ere, Zamora prestatzaile fisikoaren lana ere aipatu behar. Gazteak sasoiaren jartzeko ardura izan duen lagunak ez du kale egin eta. Txapelketan bestalde hiru goleatzaile nagusi izan

dira, Julen Zaitegi, Josu Etxebarria eta Asier Sanchez.

Gazte hauek orain urte t'erdi hasi ziren horrelako txapelketetan parte hartzen. Iazko Aste Santuan Bordeleko txapelketara joan eta lehen postuarekin itzuli ziren. Aurtun Blanesen egon dira eta sailkapeneko bigarren postuaren jabe egin dira. Gasteiz Cup ere beraiek irabazi dute. Taldea

10 eta 12 urtera arteko gazteek osatu dute eta guztira 16 dira: Josu Etxebarria, Asier Sanchez, Julen Zaitegi, Asier Manso, Robert Alonso, Andoni Andres, Imanol Rodriguez, Andres Castillejo, Markel Gonzalez, Mikel Gonzalez, M. A. Ballesteros, Maikel Hernandez, Kepa Etxebarria, Ruben Davila, Iñigo Zabala eta Sergio Rosado.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

YOSU HERMIK

VENTANAS AISLANTES



Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioa. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

ERREBELATUEN ESKAINTZA

4x3

ERREBELA ITZAZU

4 ROILO

ETA ORDAINDU

BAKARRIK 3



- * Hegazkinak zigildutzeko eta errebelatuaren eskaintza hartu ahal izateko, ezinbestekoa da orri hau aurkeztea.
- * 24 edo 36 argazki errebelatuentzako soilik.
- * Banan-banan gehitu daitezke errebelatuak.

Eskaintza hauek 1996ko urriaren 14an bukatzen dira.

ROILOEN ESKAINTZA

ERAMAN ITZAZU

3 ROILO ETA

ORDAINDU BAKARRIK 2

3x2



- * 24 edo 36-ko roiloentzako soilik.

Iturrioz, 8 - Bajo • Tel. (943) 77 04 01
ARRASATE



BASKIRIAKO ERREPUBLIKAKO TALDE FOLKLORIKOA

- Monterron Parkean
- Uztailak 23, asteartea
- Gaueko 10.30etan

ARRASATEKO UDALA



Badago elkartzen
gaituen zerbait...



ARRASATE
KIROLAK

Arrasate Kirolak, zure
kirol denda.

**Kirol bakoitzerako
erantzun bat.**

Kontzeziño kalea, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12/ 77 12 47

● *Alberto Matilla*

Modeloen artean tokia egin guran

22 urte ditu eta arrasatearra da. Bere izena: Alberto Matilla. Orain dela lau urte Gasteiza joan zen bizi izatera ez ohiko ogibide batean lehenengo pausuk emateko. Modelo izatea erabaki zuen Albertok. Orduetik hainbat lan egin duen arren, modelo lanetarako oraindik gaztegia dela dio.

- Zer dela eta modelo?

- *Mambo 1* taldeak desfile batzuk antolatu zituen Amaia antzokian herriko dendatako arropak erakusteko, eta nik horietan parte hartu nuen. Pertsona batek ikusi eta Gasteizen modeloendako dagoen eskolan sartzea gomendatu zidan. Hara joan eta aukera izan nezakeela esan zidaten. Horrela Gasteiza joan nintzen bizi izatera, eta lan egiteaz gain modeloendako eskolan sartu nintzen.

- Zein da zure lana?

- Pasarelako eta publizitateko modelo profesionala naiz. Profesionala izateak esan nahi du titulu bat, eta zein lan egin gomendatzen didan agenzia bat ditudala.

- Oraingoaz Gasteizen zaudete, lanik badago?

- Modari dagokionez batez ere Euskal Herrian, Valentzian, Madrilen eta Bartzelonan dago lana. Hemengo diseinatzaile asko dago eta horrek eskola sortzen lagundu du. Urtetik urtera gero eta lan gehiago dago Euskal Herrian. Estatuko argazkilari onenak ere Gasteizen bizi dira.

- Uztailean, adibidez, zer egin duzu?


- Iaz moduan hile honetan barruko arropak saltzen dituen etxe batendako publizitatea egin dut. Horrez gain, Gasteiz ezagutzera emateko atera dituzten katalogo batzuetan ere modelo lanak egin ditut, eta Aretxabaletako ileapaindegi batendako argazkiak atera dizkirate.

- Orain arte egindako lanik garrantzitsuenak?

- Barruko arropen kanpaina garrantzitsua izan da nire argazkiak estatu osoan zabaldu dira eta. Aurrez, berriz, Gasteizko ileapaindegi baterako egiten nuen lan eta horren bidez, Europa osoan argitaratzen den aldizkari batean atera ziren nire argazkiak.

- Kanpora irtetzeko asmorik?

- Ez nago horretarako prestatuta, asko ikasi behar dut



oraindik. Gainera, oso gaztea naiz. Zerbait egin nahi duten neska modeloei 18 urterekin kanpora joan behar dute, baina ni 25 urtetik aurrera has naiteke zerbait egiten. Argazkietan ateratzen diren mutil modeloei ez dute 25 urte baino gutxiago. Nire aurpegiko fakzioak ez dira mutil helduarenak, eta horregatik, oraindik itxaron beharra daukat. Bitartean ikasten jarraituko dut, eta ondoren pentsatuko dut zer egin.

- Gizarteak zelan ikusten du modeloen lana?

- Neska bat modelo izatea ondo ikusita dago baina ez hain ondo modelo mutila bada. Jendeak ez du gure lana serio hartzen, baina niri hori ez zait inporta. Ezagutzen nauenak badaki zein lan egiten dudana. Modelo lanak esfortsua eskatzen du, urte

osoan pisu bera edukitzea eta ondo egotea ez da erraza. Egun batean argazkiak atera behar badituz, adibidez, aurreko egunetan ezin naiz jaietara joan, bestela begizuloak ateratzen zaizkit.

- Zer da duzun politena eta zein akatsik handiena?

- Gehien begiak gustatzen zaizkit. Nire begirada oso sakona da. Gutxien, ostera, sabela. Zaintzen ez badut tripa ateratzen zait.

- Modelo lanak ematen du bizi izateko?

- Lana baduzu diru asko irabaz dezakezu. Noizean behin lana eginda bizi izateko adina izan dezakezu.

- Zer esaten du zure amak?

- Nire ama oso pozik dago nire lanarekin, eta asko animatzen nau.


● **“Nire aurpegiko fakzioak ez dira mutil helduarenak, eta horregatik, oraindik itxaron beharra daukat”.**
“Modelo lanak esfortsua eskatzen du”

TOUR PORRA MUNDIALA!

Zelako martxa daraman gure porrak! Tourrak adinakoa duda barik. Aldaketa eta sorpresa ugari gertatzen ari dira aurtengo Tourrean eta jakina, horrek eragin handia dauka porraren martxan. Egun batean sailkapeneko goialdean dagoena, hurrengoan ez da agertzen, eta akaso pare bat egunera berriro lehen postuetan.

Kontuak kontu, orain arte (asteazkena 17) ondorengo hauek dira eguneroko maillota irabazi dutenak:

- | | |
|--------------------|-----------------------|
| 1- Iñaki Larrea | 9- Iker Vitoria |
| 2- Amets Ugalde | 10- Jon Alkorta |
| 3- Aitor Azkarate | 11- Aritz Kortabarria |
| 4- Pako Ramos | 12- Olatz Dorronsoro |
| 5- Jon Velez | 13- Asier Lasa |
| 6- M.J. Etxebarria | 14- J. L. Azkarate |
| 7- Izar Zeziaga | 15- Ozaeta anaiak |
| 8- Kepa Ormaetxea | |




Bizikletarako sailkapen orokorra

<i>Izena</i>	<i>Puntuak</i>
• Jose Luis Azkarate	719
• Consuelo Modino	670
• Jon Mendieta	661
• Maite Ormaetxea	639
• Josune Azkoaga	639
• Esther Fernandez	637
• Jon Velez	623
• Pilar Velez	621
• Itziar Okina	617
• J. Felix Torga	610

Astehenean emango diogu LIZARRALDE KIROLAK dendak prestatu duen mendiko bizikleta eder hori gure porraren irabazlearentzat. Hemendik eta irailera arte aldizkari gehiago kaleratuko ez denez, banaketa saioa ATBko informatiborearen barruan egingo dugu. Beraz, sailkapeneko lehen postuetan zaudetenok ez kendu begirik Arrasate Telebistari.

**Astehenean
bizikleta emango
da ATBn!**



Oraindik ez ditugu maillot guztiak jaso, baina ez larritu lehenago edo beranduago banatuko ditugu eta. Euskadi taldekoak aste honetan iritsi zaizkigu, **Asier Guenetxearen** eskutik. Bertara etorri zen maillotak ekartzera eta berehala jarri genuen sinatze-ko lanean.

Txakolin izozkia

Uda honetako nobedade freskoa

Eugenio Uribarren izozkigileak beste izozki berri bat asmatu du: Txakolin izozkia. Aurrez bazituen hainbat zapore desberdineko izozki bitxiak eginak, hala nola, patxaran, babarrun edota Idi-ziabal gaztarenak. Orain berriz, Arrasateko herriari beste zapore bat eskeini nahi izan dio eta froga asko egin ondoren, txakolin izozkia asmatu du.

Euskal Herriko produktuak

Eugeniok esaten duenez "nire izozkiak egiteko Euskal Herriko produktu tipikoak erabiltzea gustatzen zait eta horregatik aukeratu dut txakolina. Sagardo izozkia egiteko asmoa ere banuen baina Asturiasko izozkigile batek egina duela jakin dut eta nik ez dut gauza bera egingo".

Txakoli izozkia zelan egin duen galdetzean berriz, erreparo asko jartzen ditu izozkigileak, hori, sekretu handia ei da eta. Esaten duen gauza



Eugenio Uribarren da izozki berri honen asmatzailea.

bakarra, izozkia 8 edo 9 produkturen nahasketaren ondorioa dela da. Produktu horien artean txakolina dago eta ez edonolako gainera. Bere

izozki berria egiteko Zarautzko "Ameztoi" txakolin eza-guna aukeratu du. Txakolin izozkiak beste guztiak baino azukre gutxiago duela eta

ondorioz gutxiago loditzen duela dio: "Erregimenetarako izugarri ona da".

Pozik jartzeko modukoa

Txakolinak alkohola duen moduan, izozkiak ere badu berea. Hala ere, izozkia janzero mozkor handirik ezin dela harrapatu dio Eugeniok, "pozik jartzeko modukoa". Postre moduan hartzeko oso egokia dela aitortzen du izozkigileak baina baita bero handia dagoenean kalean jateko ere.

Txakolin izozkia hile honetan salgai jartzeko asmoa dauka baina zaporez zertxobait suabeagoa den beste bat egin nahi du. Orain 100%eko txakolin kantitatea duen 18 litro izozki egin du Eugeniok baina umeez jan ahal izan dezaten, %30eko txakolina duen izozkia egin nahi du.

Aurtengoz ez duela izozki berri gehiagorik egingo esaten du Eugeniok, baina datorren urterako badu ideia berriak. Errioxa ardo, makailu eta susa izozkiak buruan ditu bueltaka:


LORE GAZTEAKen Dantza ikuskizuna



- *Monterron Parkean*
- *Uztailaren 19an, ostirala*
- *Gaueko 10.30etan*
- *Sarrera: 500 pta.*
(Gazte Txartelarekin: 300 pta)



ARRASATEKO UDALA



porretara jende gehiena irtetzen da azkenaldian, baina lehen ez zen oso gauza normala izaten. Hala ere, jai-egunak aprobetxatuz, noiz behinka antolatzen ziren bidaiak. Argazkia horretariko batean aterata dago, Miarritzeko hondartzan. Bertan agertzen direnak


Parisa joan ziren 1954. urteko abuztuan, 10-12 egunez Argiaren Hiriburua ikusteko. Zerrajerako apendizien eskolako 25 ikaslek antolatu zuten bidaia, eta dena La Vergaresa enpresako 14. autobusean egin zuten. Bueltan, gau osoa autobusean pasa ondoren, Miarritzen geratu

eta hondartzan bainutxo bat hartzea erabaki zuten. Argazkikoak honako hauek dira, ezkerretik hasita: **Juanito Jauregi**, **Jose Antonio Ugarte**, zutik dagoena **Satur Jauregi**, **Jose Luis Madinabeitia**, ezezagunak ondorengo biak, eta **Luis Martinez** eskubikoa.


LENIZ ALUMINIOAK

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.

Bi orriko atea



Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!



Bi orriko leihoa



Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Leihoen neurria Lzurre beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.


Erakutsita eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urrebu

Z E R N A H I A G O ?

Oskar Saez

Barceló Bidaiakoa

- **Nora doa uda honetan jendea?** Balear irlotara eta Kanarietara.
- **Zein opor lekuk egin du behera?** Costa del Sol-ek.
- **Zein da daukazuen bidaiarik garestiena?** Munduari bira kruzero batean.
- **Nora gomendatuko zenidake joatea?** Karibera.
- **Zu egon zara?** Bai.
- **Nora zoaz oporretan?** Kubara, baina azaroan.
- **Maleta ala motxila?** Maleta.
- **Trena, hegazkina, autobusa ala bizikleta?** Hegazkina.
- **Arrasatek zer beharko luke turismoa erakartzeko?** Hondartza.
- **Geratu zara inoiz abuztuan opor barik?** Beti.
- **Kukurutxoak ala poloak?** Kukurutxoak.
- **Negartia zara?** Bai.
- **Ze arropa ez zenuke sekula jantziko?** Peto bat.
- **Egon zara San Ferminetan?** Bai, parranda ona egin nuen.
- **Zer egin zenuen azken zapatu gauean?** Burgosen egon nintzen.
- **Zenbat hizkuntza dakizu?** Hiru: ingelesa, frantsesa eta erdara.
- **Zure akatsik handiena?** Inpuntualitatea.
- **Asko kostatzen zaizu esnatzea?** Izugarri.
- **Sukaldari ona zara?** Beno, konpontzen naiz. Postreak egitea gustatzen zait, tartak.
- **Zenbatean behin joaten zara ileapaindegira?** Bi hiletik behin.
- **Izan duzun azken gaixotasuna?** Bronkitisa.
- **Bakeroak ala pintzadun frakak?** Pintzadun frakak.
- **Ligatzea ala ligatua izatea?** Ligatua izatea.
- **Zenbat pisatu zenuen jaiotzean?** 3,8 kilo.
- **Zerk aspertzen zaitu?** Futbolak.



LABURRAK

Etxeko jantzien erakusketa

Uztailaren 22ra arte "Etxeko jantzien erakusketa" izango da ikusgai Monterronen. Erakusten diren lanak Deba Garaiko Mankomunitateak eta Arrasateko Udalararen artean, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailaren dirulaguntzarekin antolatutako Etxeko Jantzien Jostintza ikastaroko ikasleek kurtsuan zehar egin dituztenak dira.

Monterronen neurri txikian eta benetako neurrian egindako lanak ikus daitezke. Neurri txikian bikoteko, banakako eta ume logela, egongela, modelo desberdineko kojina eta gantxiloz egindako mantelak ikus daitezke. Benetako neurrian berriz, teknika desberdinekin apaindutako mantela, sukaldako ohial, amantal eta esku-larru jokuak, apaindutako poltsak, eskuz apaindutako kamisoiak, jantzi folkloriko-etako azpiko gonak eta "patchwork" erako ohe-estalkiak dira. Erakusketa betatik 8etara dago zabalik astelehenetik ostiralera eta 12etatik 14etara eta 18etatik 20etara larunbatetan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.


Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

• ESAERA •

*"Sekula bere jaioterritik
irtetzen ez dena
prejuizioz beteta bizi da"*

GOLDANI

• JEROGLIFIKOA •



Zapatarik erosi duzu?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13					
	14			15			16
17			18				
19						20	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Baliogabetu, anulatu. 9. Pentsatzeko gaitasuna duena. 10. (Ald.) Pare bat. 11. Kontaktua egin. 12. Kale txiki eta estua. 14. Musika eskalako seigarren nota. 15. Herrialde hinduetan, erregina. 17. (Ald.) Ikusmenaren akatsa. 19. (Ald.) Euskal jaka tipikoa. 20. Esnatu aurretik.

Bertikalak 1. 95 Aukea kirolari onenaren izena. 2. Irekirik. 3. Ukatzeko erabiltzen den hitza. 4. Seguru. 5. Lekurik. 6. (Ald.) Lanerako asmatutako aparatoa. 7. Etxeko haur txikiena. 8. Oihu luze eta tristea. 13. (Ald.) Iparrorratzak markatzen du. 16. Arnas gabeziak hil. 17. Urrea. 18. Joan aditzaren erroa.

• HOROSKOPOA •

Aries Lana egitea ondo dago baina oporretan lasaitu zaitez mesedez.

Taurus Praka estuegiak eta niki motzeziak erabiltzen dituzu.

Gemini Ez galdu itxaropenik, noiz-bait aberastuko zara eta.

Cancer Aspaldian zabilta lagun on baten beharrean.

Leo Ohitura zaharren jarraitzaile sutsuegia zara.

Virgo Oporretan arazoak argitzeko astia izango duzu.

Libra Datorrena datorrela, ez amore eman eta eutsi gogor.

Scorpio Bihar edo etzi gonbite zoragarria jasoko duzu.

Sagitarium Dei tentagarriak jaso nahi dituzu baina hori ezinezkoa da.

Capricorn Irakurtzeko Biblia eta ostiraletan ez okelarik jan.

Aquarius Kontuz ibili etsaiekin baina baita lagunekin ere.

Piscis Umetan jendez inguratuta egon zinen baina orain bakarrik zaude.



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)


AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Errefirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta personalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



ABUZTUAN
ZABALIK.
(19tik 26ra ezik)

TELEBISTAREN TXOKOA



Porraren sari banaketa

Arrasate Telebistako lankideoi ere heldu zaigu oporrak hartzeko garaia, baina joan aurretik Tourra hasi zenetik egunez egun egin izan zaion jarraipenari

bukaera emateko, mendirako bizikleta entregatu behar ATB eta ARRASATE PRESSEK antolatuko porraren irabazleari. Asteleheneko albistegiaren barruan egingo da hori.

KOMIKIA



Zagazor.

PROGRAMAZIOA



19 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

22 Astelehena

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

23 Asteartea

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

24 Asteazkena

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

Abuztuaren azken astean itzuliko gara lanera, eta normala denez, egunean bertan izango duzue lanurteko lehen albistegia ohiko ordutegian.

SOLUZIOAK

Bai, bi pare.
JeroGifitkoak:


16. Ito. 17. Au. 18. Oa.
na. 7. Tatan. 8. Ulu. 13. (Ald.) Ipar.
Ez. 4. Zitur. 5. Tokirik. 6. (Ald.) Maki-
Bertikalak: 1. Eirik. 2. Zabaliak. 3.
pia. 19. (Ald.) Kalku. 20. Lo.
ka. 14. La. 15. Rant. 17. (Ald.) Mio-
nal. 10. (Ald.) Bi. 11. Urtiu. 12. Kanti-
Horizontalak: 1. Ezzeiatu. 9. Razio-

JUBAR

- Ate eta pertsiara automatikoak
- Automatismook
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte-tresnak

Kataide Poligonoa, 18
ARRASATE

Tfnoa: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Etxebizitzak

- **Ikasturterako pisua alokatzen da Donostian.** Oso merkea. Tfnoa: 71 50 87.
- **Playa de la Matan** (Torrevieja) guztiz jantzita dagoen apartamentua alokatzen da. TB, igogailua... Tfnoa: 71 63 19. Tfnoa: 81 55 83.
- **Uztailean pisua alokatuko nuke** Arrasaten. Tfnoa: (947) 50 99 59.
- **Lokala alokatu nahi dugu** nahiz eta txikia izan edo egoera onean ez egon. Tfnoa: 79 20 03.
- **Donostian apartamentua alokatzen da** abuztuan. Hilabete osoa edo 15 egun. Hondartzatik gertu dago. Tfnoa: 21 22 68.
- **Familia batek pisua alokatuko luke** Arrasaten abuztuan bizitzen hasteko. (94) 620 32 20.
- **Hiru lagun behar dira pisua osatzeko.** 12.000 pta. Jon. Tfnoa: 65 52 98.
- **Santa Polan (Alicante) apartamentua** alokatzen da uztailearen bigarren hamabostaldia eta abuztu osoa. Tfnoa: (983) 77 02 14.
- **Pisua behar dut Arrasateko erdialdean** ahalik eta azkarren. Tfnoa: 79 78 10.
- **Bost ikasleendako pisua** bilatzen gabilta. Tfnoak.: (94) 456 47 46. Urko eta (94) 491 14 74 Ekain.
- **Erdialdean pisua alokatzen da.** Guztiz jantzita. Tfnoak: 79 35 50 eta 43 12 91.
- **Pisua behar dut Arrasaten.** Tfnoa: 79 50 11. Mireia.
- **Altamiran bi garaje plaza alokatzen dira.** Bate nbestearen ondoan daude. Eta Maixor etxean beste bi plaza alogagai. Tfnoa: 77 03 22.
- **Garagartzan dagoen Elizondo** taberna alokatzen da. Tfnoa: 79 15 99.
- **Pisu bila nabil eta pisu hori** osatzeko jendea ere behar dut. Aretxabaletan edo Eskoriatza. Abuztutik aurrera. Tfnoa: 10 73 93.

Lana

- **Informatikako 4. maila bukatuta** daukan gazteak OHO, BUP, Pascal, C eta MsDos-eko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.
- **Arotz bat behar dugu** lehen edo bigarren mailako ofizialaz. Interesatuak dei egin 79 34 40 tfno.ra goizeko 10etatik ordubata arte eta 4.30etatik 8etara.
- **Ileapaintzaile ikaslea** ileapaindegietan lan egiteko prest. Udan egun osoz eta urtean zehar goizetan. Tfnoa: 79 75 55.
- **BUP lehen mailako klase** partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 79 68 75.
- **Uztailean ingelesezko klase partikularrak.** Talde txikiak. Tituloduna eta esperientziaduna. Tfnoa: 77 02 42.
- **REM eta UBiko klaseak** ematen dira euskaraz zein erdaraz. Fisika, matematika eta marrazketa. Tfnoa: 79 82 01. Iñaki.
- **Kimikan lizentziatuak klase partikularrak** ematen ditu. Matematika, fisika eta kimika. Interesatuok 79 42 97 tfnora. dei egin.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 48 12.
- **BUPEko 2. mailako latineko eskolak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 20 24.
- **Pertsona euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 05 22. Iluntzean deitu.
- **Marrazketa geometrikoko klase partikularrak** behar ditugu. Tfnoa: 79 06 60 edo 79 93 04.
- **Neska gertu etxeko** garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Irailetik aurrera pertsona euskaldun behar** dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 77 01 31.

Salerosketak

- **Yamaha XS-400 motoa salgai.** NA-M. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaintututa. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.
- **Peugeot 505 Turbo Diesel Covadonga** modelo-ko salgai. SS-F. Tfnoa: 79 94 11.
- **200 litroko akuario berria salgai.** Tfnoa: 79 04 35.
- **Kanpin-karro denda erosiko nuke.** 74 05 37. Mila.
- **Kanpin-karro denda salgai.** Tfnoa: 79 65 70.
- **Auto berri baten gaineko lehiatila salgai,** baita ere Galaxy Jupiter emisorea eta Panasonic erantzungailu automatikoa. (908) 57 64 83. Josean.
- **Honda CBR 600 motoa salgai.** Bidaizteko gertu. Berri berria dago. Tfnoa: 77 09 85. Txomin.
- **Kawasaki ZZR 600 motoa salgai.** 2.900 km. ditu. ITVa 98 urtera arte pasatuta. Berri berria. Kantatua opari. Tfnoa: 908-57 64 83.
- **Suzuki CSX 750 R' 91 motoa salgai.** Oso egoera onean. Tfnoa: 77 13 91.
- **Citroën BX 19 GT autoa salgai.** OR-G. Prezioa: 150.000 pta. Tfnoak: 79 92 31 eta 79 23 26. 8etatik aurrera.

Denetarik

- **Urrezko pultsera bat galdu nuen** uztailearen 1ean edo 2an Musakola eta Kataide artean. Tfnoa: 79 99 34.
- **Txakurkumeak oparitzeko ditut.** Arraza nahasi-koak eta oso politak dira. Tfnoa: 79 94 00.
- **Festina gizonezko erlojua galdu nuen** larunbatean Amaia antzokitik Ferrerierako bidea. Tfnoa: 79 05 24.
- **Memoricard izeneko disket bat galdu da,** gris kolorekoa eta Sony markakoa. Kotxedun pegatinak ditu itsatsita. Tfnoa: 79 76 91.

Aste Gazte

Bekak

- Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP), administrazio eta zuzenbide-itzulpenaren eta terminologiaren arloan prestatzeko sei bekatarako deia egin du. Unibertsitate-lizentziadun eta diplomatuak zein lizentziaturako azken urtea egiten ari direnei zuzenduta. Epea: uztailak 23.
- 96-97 ikasturtean unibertsitate maila eta goi mailako beste ikasketak batzuetarako (dantza, arte dramatikoa...) beken deialdia. Epea: urriak 15.

Lana

- Errenteriako Udalak, ondorengo lanpostuen deialdia egin du: administrari bat; haurtzain bat; administrari bat; igeltsero ofizial bat eta udaltzaingo ofizialorde bat. Epea: uztailak 24.
- Zamudioko Udalak, itzultzaile plaza bat kaleratu du. EGA edo balioakidea izatea eskatzen da. Epea: uztailak 24.
- Areatzako Udalak, kultur suspertzaile lanpostu bat kaleratu du. Epea: uztailak 29.

Ikastaroak

- Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuta, "Sakanen jeitsieraren ikastaroak" abuztuko asteburuetan. Leku ezberdinak: leze kobazuloak, Fago... Prezioa: 8.000 pezetatik 12.500 pta bitartean. Epea: ikastaroa hasi baino bost egun lehenago.

Lehiaketak

- "Gazteak eta Intsumisioa" VII. argazki lehiaketa. Bi kategoria: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuri-beltzean zein koloretan. Epea: urriak 11.

"Gazteei buruzko ikerketa gizarte zientzien obsesio bat bilakatu da. Jakintsuen artean kaleko tribuez hitzegitea modan dago, baina terminoak nahasten dituzte."

JAKUE PASCUAL
SOZIOLOGOA
(EGUNKARIAN)

Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

*Olano eta Mugarrirekin
edonora!*



*Tour-ean ere onenekin
batera!*

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxe: 79 62 54



OSTANTZ



ferrerias 12



erdiko kale 22



KAJOI

**gaueko 11 etatik
aurrera...**

GAUR

Uztailak 19



**RON AÑEJO
CACIQUE**

JAJA